

UNITATE DIDAKTIKOA: DURANGOKO BONBARDAKETA

Irakasleen Gida

» Sarrera

www.durango-ezagutu.eus webgunean eskura duzun Unitate Didaktikoan, ariketak jarduera moten arabera antolatuta daude. Horrela, irakasle bakoitzak bere helburuen arabera hautatu dezake egokien iruditzen zaion materialaren erabilera. Izan ere, askotariko baldintzen aurrean erabili daiteke materiala: ikasleen adina, interesa, unitateari eman nahi zaion denbora...

Hala ere, esku artean duzun Irakaslearen Gidan, jarduerak hurrenkera baten arabera antolatzeko proposamena egiten da, batez ere, gertakari historikoen kronologia aintzat hartzeko.

» Sekuentzia Didaktikoa

ZER DAKIZU DURANGOKO BONBARDAKETARI BURUZ?

Durangoko bonbardaketari buruz informazioren bat jaso al duzu inoiz? Ikastetxean, etxean, komunikabideetan... Jarraian, idatzi itzazu gertakari hari buruz ezagutzen dituzun datuak.

Azken urteetan bonbardaketa gogoratu eta biktimen memoria omentzeko ekintzak ugaritu egin dira, baina urte luzez berba gutxi egin da gaiari buruz. Durangokoari, *isildutako bonbardaketa* deitu izan zaio. Zure etxean egin al da barbarik? Zure aitite eta amamek kontatu al dizute zerbait? Zergatik uste duzu mantendu dela isilik?

Etxean entzundakoak klasean konpartitu, eta aipatutako galderen inguruan hausnartu denok batera.

IRAKURGAIA: GERRA ZIBILEKO AURREKARIAK

Militar faxistek 1936ko uztailaren 18an eman zuten Espainiako Errepublikaren aurkako estatu kolpea, baina ez zutenez boterea berehala lortu, Gerra Zibila hasi zuten, 1939ra artekoa. Faxistek irabazi zuten eta Francoren diktadura hasi zen, 1975era arte iraungo zuena.

Militarrek kolpea eman eta 4 egunetara, 1936ko uztailaren 22an, eraso latz bat sufritu zuten Otxandion: faxistek bonba batzuk jaurti zituzten Andikona plazan. Herriko jaiak zirenez, Santa Mañak, jende asko zegoen kalean. 61 herritar hil ziren, eta beste asko zaurituak izan ziren.

Durangon ere, ezaguna dugun bonbardaketaren aurretik beste bat gertatu zen, 1936ko irailaren 25ean. Bonbetako bat Ezkurdiko pilotalekuan jausi zen, eta bertan babestuta zeuden 12 miliziano gipuzkoar hil ziren.

Gero, mendeku lez, errepublikar batzuek Ermodon zegoen kartzela asaltatu zuten. Faxisten aldekoak izatea leporatutako 22 pertsona fusilatu zituzten, epaiketarik egin barik. Horren ostean, ustez fusilamenduetan parte hartu zuten beste errepublikar batzuk fusilatu zituzten frankistek.

EGIA ALA GEZURRA?

Aurreko testua irakurrita, adierazi esaldiak egia ala gezurra diren:

- Durangon gertatu zen Gerra Zibileko lehenengo bonbardaketa. (Gezurra)
- Irailaren 25eko erasoaldian ez zen hildakorik suertatu. (Gezurra)
- Gerra Zibila 1939an amaitu zen. (Egia)
- Errepublikaren aurkako estatu kolpea 1936ko abuztuaren 18an eman zuten. (Gezurra)

IRAKURGAIA: BONBARDAKETA

1937ko martxoaren 31n, euskal gizartea beldurtzeko eta lurraldeak irabazten joateko asmoz, gizarte zibilaren aurkako bonbardaketa masiboa egin zuten Durangon. Ordura arte Europan kasik ikusi gabeko eraso mota izan zen.

Francoren menpeko Mola militar jeneralak agindu zuen Durangoko bonbardaketa, eta atzerritik laguntza jaso zuen: Italiako Aviazione Legionariako soldaduek burutu zuten aire eraso. 336 pertsona inguru hil ziren, eta zaurituak ere asko izan ziren. 225 etxe inguruk jasan zituzten kalteak. 244 bonba eta 11.600 kilotik gora leherkari erabili zituzten erasoan.

Hauxe da bonbardaketaren kronologia:

» Martxoak 31

07:00 Soriatik eta Logroñotik 9 bonbaketari eta 18 ehiza hegazkin atera ziren. Batzuk Elorriorantz joan ziren, besteak Durangora. Bat Soriara bueltatu zen arazo mekanikoengatik.

08:30 Elorrion 50 kiloko 88 bonba jaurti zituzten. Gutxienez 7 lagun hil zituzten.

08:30 Durangon Kurutzesantuko ermitan jausi ziren lehen bonbak, eta Kurutziagako kurutzea bota zuten. Jesuiten San Jose elizan, mezan zeudela, 27 pertsona hil ziren.

Santa Susanako komentuan 13 moja hil ziren. Andra Marian elizkizuna eta merkatua zeudenez, jende ugari hil zen. Gainera, Alde Zaharreko hainbat etxe suntsitu zituzten.

17:30 Arratsaldean beste erasoaldi bat egin zuten faxistek. Tren geltokian bonbak jaurti zituzten, eta hildakoak kanposanturantz eramaten ari ziren jendeari tiro egin zioten airetik.

» Apirilak 2

Ezkurdi, Batzokia, Andra Mariko basilika, San Agustineko ospitalea eta tren geltokia bonbardatu zituzten.

» Apirilak 4

Beste eraso gogor bat bota zuten hegazkin italiarrek. Ordurako Durango ia hutsik zegoen.

Bonbardaketari buruzko informazio guzti hori jasotzen lan handia egin du Gerediaga elkarteak, Jon Irazabal historialariak gidatuta.

Bonbardaketari buruzko informazioa duzu udalaren web gunearen ondoko helbidean: <https://www.turismodurango.net/recorrido-sobre-el%20bombardeo>

ZER NON

Bonbardaketaren irakurgaia aztertu ondoren, lotu leku izenak eta gertakariak:

Andra Maria – Merkatua zegoen eraso hasi zenean

Jesuiten eliza – Bonbek mezan zeudela harrapatu zituzten

Tren geltokia – Martxoaren 31n arratsaldez bonbardatu zuten

Alde zaharra – Etxe ugari kaltetu ziren

EZETZ ASMATU

Martxoaren 31n hasitako bonbardaketak irudi latzak utzi zituen Durangon. Gerediaga elkarteak jasotako argazki zahar hauetan etxe eta kaleak hondatuta ageri dira. Asmatuko al zenuke zein leku diren?

NON DAGO?

Horma zati berezi hau Durangon dago. Bonbardaketen eta tiroen aztarnak nabaritu daitezke bertan. Baina, ba al dakizue zehazki non dagoen? Komentatu ezazue klasean.

Alde Zaharreko hainbat hormatan daude gerraren aztarnak. Erasoak jasandako lekuetan begiratzuz gero, ikusi ahal izango dituzue. Aztertu lekuak eta aztarnaren bat topatzean atera argazki bat.

[Aztarnak ibilbidea](#) baliagarria egingo zaizue jarduera hau burutzeko. Webean duzue linka.

BRAULIOREN BILA

Oilarraren kantuarekin esnatu zen Miren, goizean goizik. Izan ere, Durangora joan beharra zuen, amari baserriko produktuak saltzen laguntzeko. Horrela ba, gosaldutako ostean amari otzarak eta zakuak prestatzen lagundu zion. Denerik sartu zuten: porruak, babak, patatak, piperrak, arrautzak, txorizoak... Aitak Braulio astoa ekarri zuen kortatik, eta honen gainean banan-banan kargatu zituen ama-alabek atundurikoak. Oraindik eguna argitzen zegoela, haizearen freskura igarri zuen Mirenek. Martxoaren 31 zen, udaberriaren sarrera.

Braulioaren pauso geldoan, txiri-txiri ekin zioten ibilaldiari.

- Aupa Braulio! Goazen! Astotxoa, gure astotxoa... -jarraitu zuen animoak ematen umeak.

Braulio maite zuten pila bat. Zaharturik zegoen, baina lanerako ez zuen arazorik ematen, ona eta lasaia zelako. Kolore beltzekoa zen, musturrean zuriune batekin, eta belarri luzeak zituen. Mirenek ondo zaintzen zuen; egunero ogia ematen zion, eta jaten zuen bitartean laztandu egiten zuen, panpina balitz bezala. Braulioaren ilea ukitzea lasaigarria zen.

Ordubetez ibili eta gero, azkenean ailegatu ziren Andra Mariko elizpera. Mirenek eta amak atean prestatu zuten euren postua, etxeko uzta saltzeko irrikaz. Braulio euren ondoan utzi zuten, sano trankil.

Bat-batean sirena hotsa zabaldu zen, eta elizako kanpaiak ere dilin-dalan dilin-dalan hasi ziren. Jendea oihuka. Danba! Danba! Danba! Trumoi erraldoiak ziruditen, baina bonbak ziren. Miren eta ama hormaren kontra babestu ziren guztiz kikilduta. Amak alaba besoetan hartu eta begiak zarratzeko agindu zion.

Zaratak aldendu zirenean burua altxatu zuen Mirenek. Ai ene! Braulio falta zela konturatu zen.

- Ama! Braulio non dago? Minik hartu ote du?

- Ez dakit, Miren. Izaturik alde egingo zuen. Goazen bilatzera.

Alde zaharreko kaleetan barrena dena zen sua, horma zatia, egurra. Animalia batzuk deskontrolatuta zebiltzan. Jendea hara eta hona senideen bila, aztoraturik. Askorentzat bizitzan inoiz ahaztuko ez zuten eguna izan zen, beste askorentzat euren bizitzako azken eguna.

- Miren, Braulio ez dut inondik ikusten, baina ezin dugu hemen luzaroan geratu. Goazen etxera ahalik eta bizkorren! -bota zion amak alabari ahots triste batekin.

Ihesaldian, negar batean zihoan Miren, Durangon ikusitakoarekin beldurtuta. Gainera, Braulio galdu izanak pena ikaragarria ematen zion. Zer egingo zuen orain lasaitzeko beharra zeukan bakoitzean?

Azkenean, tiriki-tarraka baserrira heltzen zeudela, urrunetik arrantza batzuk entzun ziren. Ama-alabek sorpresa itzela hartu zuten etxe atarian.

- Braulio! Braulio! -dei egin zuen Mirenek.

- Han gure Braulio, bera bai espabilatua! -esan zuen amak pozik.

Etxerako bidea ondo ikasia zeukan astoak, asteroko txangoetara ohituta.

Miren korrika joan zen Braulioengana eta besarkada handi-handi bat eman zion.

LEKUKOEN AKORDUAK

Durango 1936 elkarteak bonbardaketako biktima askoren testigantzak batu ditu, eta grabazioak bere webgunean daude ikusgai. Lekukoei esker egun latz haietan gertatu zenaz gehiago dakigu, eta hobeto ulertzen dugu. Jose Antonio Oleak, berak eta bere familiak bizitakoa kontatzen du hurrengo bideo honetan:

<https://durango1936.org/eu/pasartea/800?src=gaia>

Bideoa ikusi eta gero, erantzun galderai:

- Jose Antonioren lehenengo inpresioan, zer ziren zerutik jausten zebiltzan objektuak?
- Zelan zetozen hegazkinak Durangon zehar?
- Ze animalia ikusi zituen jende artetik ihesi?
- Galduta ibili ostean, non topatu zuten Jose Antonio?
- Jose Antonioren zenbat senide hil ziren egun hartan?

PICASSOREN KOADROAREN BILA

Pablo Picassoren *Guernica* margolana gerraren aurkako irudi unibertsal bat da, eta Durangon gertatutakoa ere ondo islatzen du.

Parisko erakusketa batean Espainia ordezkatzeko koadro bat enkargatu zion Picassori Errepublikako Gobernuak. Hasieran, margolariak beste gai bat zeukan buruan. Baina, bonbardaketen argazkiak egunkarietan ikusi zituenean, horri buruz sortzea erabaki zuen azkenean. Maiatzaren 1ean hasi zen zirriborroak lantzen, eta handik hamar egunera ekin zion mihisean margotzeari. 3,49 metroko altuera eta 7,77 metroko zabalera daukan koadro erraldoia denbora oso laburrean osatu behar izan zuen, eta ekainaren 4rako ikusgai ipini zuen. Gaur egun Madrilgo Reina Sofia museoan dago.

» Konturatu zara koadroak dituen elementuez? Topatu eta markatu itzazu hurrengoak: Umea, kriseilua, lorea eta txoria.

» Orain, taldean batu eta komentatu koadroaren zentzua:

Zergatik margotuko zuen beltza eta grisa erabiliz?

Zuen ustez, zer adierazi nahi du loreak?

Zergatik ez da hegazkinik eta bonbarik agertzen?

Zuek ze elementu sartuko zenukete gerrari buruzko margolan batean?

Durangoko Arte eta Historia Museoan Gerra Zibilari eskainitako atal bat dago ikusgai. Bertan, Picassoren obrari buruzko erakusketa bat antolatu zuen 2017an, eta *Guernica*-ren bozeto baten kopia hau ikusgai dago ordutik. Joan zarete ikustera?

Museoko atal berean, frankistak Durangon sartu zireneko unea islatzen duen koadro bat ere badago, Durango suntsituta ageri dena. A. Ferrer bezala sinatuta ageri da, baina Garazi Arrizabalaga zuzendariaren arabera, bere egiletza misterio bat da.

Alderatu Picassoren Guernicarekin.

IRAKURGAIA: HILERRIKO HOBIEN MISTERIOA

Durangoko bonbardaketan hildako batzuk familien panteoietan sartu zituzten, eta beste 84 hildako hobi komunetan lurperatuak izan ziren.

Geroztik, hobi komun horien inguruan misterio handia egon da. Izan ere, hilerriko akta liburutik egun haietako orrialdeak kendu zituzten. Ez zegoen argi zeintzuk ziren hobietan lurperatutakoak, ezta zehazki non zeuden ere.

Jon Irazabal historialariak zerrenda bat osatu zuen, eta hor izen batzuk argitu ziren. Baina gainerakoak identifikatzeko asmoz, ikerketa hasi zuten 2021ean Gerediagak, Durango 1936 elkarteak eta udalak. Horri esker, hainbat familiagaz kontaktatzea lortu zuten. Guztira, 52 biktimen izenak ezagutu ziren.

2022 urte hasieran kanposantuko lurrak arakatu zituzten Aranzadi zientzien elkarteko kideek, biktimen arrastoak lokalizatzeko helburuz. Dokumentuak eta senitartekoen testigantzak kontuan hartuta, hilerriko bi eremutan egin zituzten zuloak, baina bilaketak ez zuen emaitzarik eman: ez zuten biktimen arrastorik topatu.

Jimi Jimenez durangarra Aranzadiko eta Durango 1936 elkarteko kidea da, eta ikerketan egon zen. Bere ustez, hutsunearen azalpen logikoena hauxe da: duela hamarkada batzuk, biktimen arrastoak lekuz aldatuko zituztela. Izan ere, hilerrietan, sarritan gertatzen dira horrelako aldaketak, lurra berrerabili ahal izateko. Hala ere, teoria hori ezin da konfirmatu, eta gaia ikertzen jarraituko dutela azaldu du Jimenezek.

Hobiratuak izan zirenak omentzeko asmoz, Durangoko Udalak oroigarri bat ezarri du hilerrian.

IRAKURGAIA: ZUBIA

1937ko apirilaren 28an, bonbardaketak izan eta egun batzuetara, Durango eta lurreta lotzen dituen Montoiko zubia bota zuten. Ba al dakizu zergatik?

Francoren aldekoak Durangon sartu eta agintea hartu zuten bertan. Hori ikusita, errepublikaren aldeko gudari eta milizianoek Montoiko zubia apurtzea erabaki zuten. Modu horretan, faxistei Bizkaira zabaltzeko traba ipini gura zieten. Beraz, erresistentzia ekintza bat izan zen.

Zubia bota aurretik, Durangoko biztanle gehienek Bizkaiko mendebalderantz ihes egin zuten, oraindik errepublikarra zen lurraldeetan babesteko. Ondorioz, askorentzat exilioa hasi zen momentu hartan, eta zubiaren leherketak hori ere sinbolizatzen du. Herritar

batzuen kasuan, Bilbo inguruan egun batzuk eman eta gero Durangora bueltatu ahal izan zuten; beste batzuek urteak eman behar izan zituzten Euskal Herritik kanpora.

» Ikusi zelan geratu zen zubi ingurua, "Frente Vizcaya. 18 de Julio" izeneko filmeko fotograman:

» Ibaizabal errekek ur gutxi daroan sasoian, zubi zaharraren zati batzuk ikusi daitezke oraindik urpean. Ea topatzen dituzun!

Informazio gehigarria

* Anboto astekariak Agustin Eskubi gerrako umearen alabari eginiko elkarrizketa ["Nire aita eta 8 urteko Nikolas bere anaia Ingalaterrara bidali zituzten, Habana itsasontzian" - Durango - Anboto.org](#)

MARRAZKIA

Durango eta lurreta lotzen dituen zubiari buruzko informazioa irakurri ostean, marraztu zubi bat, baina kasu honetan esperantza eta ilusioa adieraziko dituen.

ABESTU DEZAGUN!

Martxoaren 31n, urtero, bonbardaketaren biktimak oroitzeko ekitaldia egiten da Andra Mariko elizpean, Gerediagak eta Kriskitinek antolatuta.

Bertan hurrengo kantua abesteko ohitura dago, Xabier Amurizaren letra eta Ander Erzillaren musika dituen. Ikusi Irati Bilbaok eta Mikel Nuñezek egindako bertsioa, eta bete testuan falta diren hutsuneak (webgunean deskargatu daiteke ariketaren testua).

<https://youtu.be/wAajCMHGDxQ>

BIDEOKLIPA SORTU

Orain, klase osoaren artean bideoklip bat sortu ezazue. Aurreko abestia kantatzen duzen bitartean, erakutsi itzazue kameraren aurrean zuek unitate honetan egindako argazkiak eta marrazkiak, adibidez.

INTERESEKO MATERIALA

- 'Aztarnak' ibilbidea. <https://youtu.be/JwpxuaSwv0U>. Gerediaga elkarte, Bideografik.
- Bonbardaketaren ibilbidea: <https://www.turismodurango.net/recorrido-sobre-el-bombardeo>. Durangoko Udala.
- *Durango 1937 Martxoak 31. Gogoratu... berriro gerta ez dadin*. Gerediaga Elkarte - Berbaro elkarte Durangoko Udala - Kriskitin (2005)
- Gorriti, Iban. (2021). *31 Vidas*. Desacorde ediciones.
- Irazabal, Jon. (2007). *Gerra Zibila Durangaldean*. Gerediaga elkarte.
- Irazabal, Jon. (2022). Durango, 1973ko martxoak 31, bonbardaketa. Gerediaga elkarte - Durangoko Udala.
- Iturriaga, Unai; Sanvi, Alex. (2022). *Udaberririk ankerrena*. Durango 1936 elkarte - Elkar.